

## **2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION EGONKORTZEKO EZOHICO PROZEDURA ETA OHICO PROZEDURAREN BIDEZ LAN KONTRATUDUN FINKO IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIAREN AKORDIOA. 2022KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA.**

### **362 ETA 402 PROZESU ESPEZIFIKOEN (III. TALDEA - KOMUNIKAZIO, IRUDI ETA SOINUKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA – KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA SOINUA) BEHIN BETIKO AZKEN KALIFIKAZIOA ONARTZEA, EGONKORTZEKO EZOHICO PROZESUA ETA PROZESU ARRUNTA, HURRENEZ HURREN.**

#### **ESAKINTZEN DIREN LANPOSTUAK AUKERATZEKO EPEA IREKITZEA.**

Egonkortzeko ezohiko prozedura eta ohiko prozeduraren bidez lan kontratudun finko izateko hautaketa-prozesuetako Epaimahai kalifikatzaileak, 2024ko apirilaren 22ko bilkuran, deialdi espezifikoko guztien (puntuazio-ordenaren arabera) lehiaketa eta euskara-faseetako behin betiko azken puntuazioak onartzea erabaki zuen, baita behin-behineko azken kalifikazioa ere.

Epaimahaiak, behin betiko azken puntuazioen aurka gora jotzeko errekurtsua jartzeko aukera eman zion UPV/EHUko Gerentziari, hilabeteko epean. Guztira 19 hautagaik aurkeztu zituzten errekurtsuak.

Errekurtsu horiek ebatzeko plazen esleipenari eragin diezaiokenez, Epaimahaiak erabaki zuen, segurtasun juridikoko arrazoiengatik, ez zela bidezkoa prozesuekin jarraitzea aurkeztutako gora jotzeko errekurtsuak ebatzi arte. Ebazpen hori Errekurtsuen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren Arloko Batzorde Administratiboari (EISBA) dagokio.

Lan kontratudun finko izateko hautaketa-prozesuko deialdi espezifikoko guztien deitutako lanpostuen zerrenda argitaratu zen 2024ko maiatzaren 14an Gerentearen erabakiaren bidez.

8.6 oinarri orokorraren arabera *"Erreklamazioak aurkezteko epea behin amaituta, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, argitara emango dira hautaketa prozesuko azken eta behin betiko kalifikazioak"*.

Era berean, 8.7. oinarri orokorrak adierazten du *"deialdi espezifikoko bakoitzeko hautagaien behin betiko azken kalifikazioa argitaratu ondoren, lanpostuak aukera beharko dira, eta horretarako epea zazpi (7) egun baliodunekoa izango da"*.

Aurkeztutako gora jotzeko errekurtsuak ebatzi ondoren, 362 eta 402 prozesuetakoak izan ezik, Epaimahaiak, 2024ko urriaren 17ko bilkuran, hautaketa-prozesu guztietako behin betiko azken kalifikazioa eta plazen behin-behineko esleipena onartzea erabaki zuen, aipatutako biak izan ezik, eta 7 eguneko epea eman zuen lanpostuak hautatzeko.

Akordio horretatik hilabete igaro ondoren, EISBAk 362 eta 402 prozesuen inguruan aurkeztutako gora jotzeko errekurtsu guztiak ebatzi ditu, bat izan ezik.

Egoera horren aurrean, epaimahaiak uste du, prozesuetan parte hartzen dutenekiko eta erakundearekin berarekin duen erantzukizunagatik, ezin duela gehiago itxaron erabaki hau hartzeko, kalte larria ekarriko bailieke izangaiei, eta 362 eta 402 prozesuetako behin betiko azken kalifikazioa onartu eta lanpostuak hautatzeko epea ireki behar duela.

Beste alde batetik, 5.1 oinarri espezifikokoan honako hau ezartzen denez: *"Kategoria batean eskaintzen diren plaza guztiek gaindituta badaukate derrigortasun data deialdia egiten den egunean, gai kalifikazioa izango dute kasuan kasuko hizkuntza eskakizuna*

*egiaztatzen duten hautagaiek*”, egoera hori gertatzen den deialdi espezifikoetan, euskarazko zutabearen “GAI” ala “EZ GAI” agertuko da.

Beraz, epaimahai kalifikatzaileak, 2024ko azaroaren 15eko bilkuran, aipatutako hautaketa-prozesuetako deialdi espezifikoaren behin-behineko kalifikazioaren aurka aurkeztu diren erreklamazioak ebatzi ondoren, deialdi horietako bakoitzaren zazpigarren oinarri espezifikoetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, honako hau:

## ERABAKI DU

**LEHENENGOA.**– 362 eta 402 prozesu espezifikoaren (III. Taldea - Komunikazio, Irudi eta Soinuko Teknikari Espezialista – Komunikazioa, Irudia eta Soinua) behin betiko azken kalifikazioa onartzea, egonkortzeko ezohiko prozesua eta prozesu arrunta, hurrenez hurren, lehiakideek lortutako puntuazioaren arabera eta deialdi espezifiko bakoitzeko hautaketa-prozesuko fase guztietako nota partzialak jarrita.

**BIGARRENA.**– Lanpostuak aukeratzeari buruzko 8.7 oinarri orokorra betetzea eta zazpi baliouduneko epea irekitzea lehiakideek eskainitako lanpostuak aukera ditzaten.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonak bi prozesuetan parte hartu badute, hau da, egonkortasunerako ezohiko prozesutik datozen deialdietan zein ohiko prozesutik datozen deialdietan parte hartu badute, lanpostuen zerrenda bakarria osatuko dute, nahi izanez gero, prozesu bateko zein besteko lanpostuak tartekatuta, eta beren lehentasunen araberrako hurrenkeran jarriko dituzte nahi dituzten lanpostuak, betiere kontuan izanda lanpostuen hizkuntza eskakizuna eta betebeharrak espezifikoak (halakorik badute) bete behar dituztela.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonak prozesu bietako bakarrean parte hartu badute, kasuan kasuko deialdiko lanpostuak baino ezin izango dituzte eskatu, dagokion kategoria eta espezialitatekoak

Lanpostuak bide elektronikoz aukeratzeko, I. eranskinen 8.7.1 oinarri orokorra hartuko da kontuan, ***“Lan Eskaintzen Atarian eskuragarri dagoen eskari orria beteta. Eskaria behin beteta, egiaztagiria eskuratuko da. Eskariarekin batera lanpostuaren betebeharrak espezifikoak egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dira, halakorik behar izanez gero. Adierazitako epearen barruan betebeharrak espezifikoak egiaztatzeko agiriak ez aurkezteak hautaketa prozesutik kanpo geratzea ekarriko du”***.

**HIRUGARRENA.**– 8.7.2 oinarrian adierazitakoa kontuan hartuta (*“Oinarri honetan zehazten den epean eta eran lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonak galdu egingo dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak”*), ulertuko da ezen, eskainitako lanpostu kopuru nahikoa hautatu ez dutelako (eskakizun espezifikoak eta/edo derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna betetzen dutelako), azkenean lanpostu horietakoren bat esleitu ezin zaien izangaiek, eskubide hobeak duten izangaiei hautatutako lanpostuak esleitu zaizkielako, prozesuan parte hartzeari uko egiten diotela.

**LAUGARRENA.**– Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-lan-kontratudunen-ezohiko-prozesua>, <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/epe-lan-kontratupekoen-ohiko-prozesua>) eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea, gaindituen azken eta behin betiko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

**BOSGARRENA.**- III. Taldeko (Komunikazio, Irudi eta Soinuko Teknikari Espezialista) lan kontratadun finko izateko egonkortzeko ohiko eta ezohiko hautaketa-prozesuei buruzko web instituzionalean argitaratzea, errekurtsogilearen datu pertsonalak bereizi ondoren, EISBA 78/2024 Kodean hartutako erabakia, prozesu horietako parte-hartzaile batek aurkeztutako bi gora jotzeko errekurtsio ebatzekoa. Horrela, aipatutako erabakian ezarritakoa beteko da.



Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Leioan, sinadura elektronikoaren datan.

Epaimahaiko idazkaria